



HKEE-REN PRENTSA OHARRA, PLENTZIAKO UDALAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA – 2002.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Plentziako Udalaren 2002ko urtealdiko Kontu Orokorrari eta ekonomia-finantza jarduerari buruzko fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena HKEEren Osoko kideek aho batez oniritzi dute.

Txostenak honako alderdi hauek besarkatu ditu: kontularitzakoak, legezkoak, udal kudeaketa hobetzeko gomendioak eta gainera, udalaren finantza egoera ere aztertu du.

Legezkotasunaren atalean, HKEEk aldeko iritzia eman du hori betetzeari dagokionez, langile eta administrazio kontratazioaren alorrak eragiten dituzten hainbat salbuespen azpimarratu dituela.

Langileen atalari dagokionez, erakunde fiskalizatzaileak berariaz azpimarratu du legehaustea dela uda sasoirako lan poltsen deialdietan udalerrian erroldatua egoteko betekizuna eskatzea; baita, horren berri udalaren iragarki oholean soilik egitea ere. Halaber, legea betetzearekiko salbuespentzat jo du zinegotziek eskuratzen dituzten diur ordainak Batzorde eta Osoko bilkuretan egiaz esku hartzeari lotuta ez egotea eta horien gaineko atxikipenak ere ez egitea.

Langileen ordainsariei dagokienez, txostenean azpimarratu da 13.000 euro ordaindu zaizkiela bost langileri produktibitate osagarri kontzeptupean, Osokoak horretarako baimenik eman gabe; halaber, beste langile bati 8.000 euro ordaindu zaizkio lansaioa luzatzeagatik, bere lanpostua lansaio ordukoa izanik.

Legea ez betetzea salatu den beste atal bat, HKEEk aztertu dituen espedienteetarik batzuetan administrazio kontratazioari dagokiona izan da.

Honela, bada, Billabasoena eraikina zaharbertzeko obraren bigarren tala, 119.000 euroko aurrekontua egin zaiona, hiru kontratutan zati-banatu da, esleipenean publizitate eta lehia printzipioak urratuz. Halaber, Parke eta Lorategiak zaintzeko zerbitzuaren kontratuan ere zatikapena egin da, guztira hiru esleipenek 64.000 euroko zenbatekoa egiten zutela. Berebat, hirugarren berari sei kultur zerbitzuak zatikatuta esleitzearekin ere, guztira 64.000 euroko zenbatekoarekin, derrigorrezko diren publizitate eta lehia printzipioak urratu dira.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Azkenik, atal berean azpimarratzekoa da hirigintza aholkularitza zerbitzua kontratu txiki modura esleitu izana, 1999an egin zena eta 2002ko urtean luzatu, azken urtealdi honetako gastuak 24.000 euro egin zituela, luzapena debekatuta egonik.

Udal kontuei dagokienez, fiskalizazio txostenak ondorioztatu du kontu horiek udal jarduera egoki azaltzen dutela, nahiz aurkeztutako datuei hainbat zuzenketa egin dizkieten, diruzaintza gerakina 1.397 mila euro inguruan jarriaz.

Finantzaren egoerari dagokionez, Udalak egungo inbertsio mailari eusteko duen gaitasuna azaleratu da, inbertsioen araberako gastuarekiko zorpidetza maila txikia baita eta diruzaintza gerakina, berriz, positiboa.